

Begira

 **ULMA**

Urtaria 2005
9. zkia.



Solasean:
Martin Berasategui

Gure Negozioak:
ULMA Hormigón Polímero



azpimarragarriena... aurkibidea



14

16



24

BEGIRA

KOLABORATZAILEEN TALDEA;
Nora Altube, Roberto Mendi, Paloma del Valle, Nerea Zallo,
Irene Moreno, Edurne Unzueta, Javier Altube

2005eko uztaila
Edizioa: Grupo ULMA
Diseinua: AZK Taldea
Inprimategia: Gertu S. L.

Grupo ULMA S. Coop.
Otañui pas., 3 - 13 posta kutxatila. 20560 OÑATI
Tel.: 943 034900 Faxa: 943 780917
e-mail: begira@ulma.es



3 Hizpidea...

2004: oso urte ona.

4 Albisteak eta gaur egungo gaiak:

ULMA Construcción Txileko
EDIFICA 2005 azokan.

ULMA Taldeak bere antolaketa hobetu du,
Intranet sare baten bidez.

Panter etxeak ULMA Handling Systems
negoziaren esku utzi du berriro bere sistema
logistikoaren automatizazioa.

ULMA Packaging negozioak elikagai
energetikoak ontziratzeke proiektu bat
garatu du.

16 Solasean:

Martín Berasategi.

18 Ezagutu ditzagun gure Negozioak

ULMA Hormigón Polímero: konpromisoa,
talentua eta lana.

20 Erreportajea

Balantze Soziala.

22 Beste begirada

Fabián Lentz.

24 Albiste osasungarriak:

Alergiak: jatorri ezezaguneko
patologia kronikoa.

26 Zer deritzozu?

28 40 urte elkarrekin

30 Agenda eta iradokizunak

2004:

oso urte ona

Taldeko kooperatiben Batzar Nagusien zikloa itxi dugu eta, behin emaitza ekonomikoak nahiz sozialak aztertu ondoren, 2004. ekitaldia gustura gelditze-ko modukoa izan dela esan dezakegu ziurtasun osoz, oro har, aurrez ezarritako helburu sozialak eta ekonomikoak gainditu baititugu.

Nazioarteko ekonomiaren joera nagusia aurreko urtekoa baino hobea izan da. Europan oraindik ere geldotasuna nagusi den arren, 2003. urteko egoera hobetu egin da, merkatu amerikarrak ere apur bat gehiago mugitu dira eta merkatu espainiarra izan da, zenbait sektoretan gutxienez, egoera onena agertu duena.

Ekonomiaren prozesu globalizatzailea geldiezina da eta, gidaritzan lortu nahian, korrika egiteko eta azeleragailua zapaltzeko garaia da. Merkatu babestuak edo mehatxurik gabeko negozio lasaia atzean gelditu dira.

Gustukoa izan ala ez, nolabaiteko bermea izango duen etorkizuna lortu nahi badugu, gaur egun lehen mailan dauden herrialdeen artean egotea lortu behar dugu (AEB, Alemania, Frantzia eta abar), eta garapen bidean dauden herrialde handietatik (Txina, Brasil, India eta abar) hurbil. Herrialde horiek zehaztuko dituzte epe laburrean nazioarteko ekonomiaren jarraitbideak eta, guk nahi ala ez, gustukoa izan ala ez, ekonomia horietara hurbildu beharra dugu eta horien ondoan bizi nahiz, ziurrenik, horien errealitatea jasan.

Ezin dugu ostrukarena egin, ezin dugu burua lur azpian ezkutatu. Etorkizunari aurrez aurre begiratu behar diogu eta, lasterketa honetan atzean geldi-

tu nahi ez badugu, dema eta proiektu zailei egin behar diegu aurre.

Ekonomiaren beste "mugimendu" edo "iraultza" baten aurrean gaude. Historian gertatutako iraultza horien guztien ondorioz hainbat herrialdek eta eremu geografikok euren egoera hobetu dute nazioartean, baina beste batzuen egoerak okerrera egin du. Gure esku dago erronka horri aurre egitea, baina horretarako lan eta ahalegin handia egin behar dugu.

Zenbaki honetan 2004ko ekitaldiko Balantze Soziala aurkezten dugu, gure batzarretan azaldu eta onartu dena.

Esparru sozialean, enpleguaren bilakaera globalak, baita filialetan gertatutakoak ere, hazkundera handia izan du. Enplegu osoak 3.000 lanpostuen muga gainditu du, ekitaldia itxi gurenean 3.008 enplegu baitzeuden. Ekitaldiko batez besteko enplegua 2.865 lanpostuetakoa izan da eta, beraz, aurreko urtean baino 234 enplegu gehiago sortu dira. Bestalde, kooperatibako enpleguan ere hazkunde

**2004. ekitaldia gustura
gelditzeko modukoa
izan dela esan dezakegu
ziurtasun osoz, oro har,
aurrez ezarritako
helburu sozialak eta
ekonomikoak gainditu
baititugu**

**José Luis
Madinagoitia**

ULMA Taldeko
Presidentea



handia gertatu da, 2004. urte bukaeran aurreko urtean baino 134 bazkide gehiago erregistratu baitziren.

Bestalde, Ordainketa Sistema Berriaren Proiektua aurkeztu da batzarretan, onartzeko. Baina bazkideek atzera bota dute proiektua. Badirudi planteamendua ez dela egokia izan, batzarraren demokratikoki eta askatasunez hartutako erabakian proiektua baztertu egin baita. Proiektua atzera botatzeko arrazoiak ikertzea egokia litzateke, etorkizunean planteatu daitezkeen proiektuetan akats bera ez egiteko.

Ekitaldi honetan batzarretako partaidetza handitu egin da apur bat, baina beharbada goian adierazitako eztabaida izan da partaidetza horren bultzatzailea. Partaidetzaren handitze hori positiboa izan da, baina zer egin behar dugu interes hori iraunkorra izan dadin?

Ez dut editorial hau amaitu nahi gure hiru bazkideen seme-alaben (Aitor, Ane Miren eta Mikel) eta Amaiaeren -ULMA Carretilas Elevadoras lantegian lan egiten zuen- heriotza eragin zuen istripu bidegabea eta tragikoa gogoratu gabe. Etorkizunerako prestatzen ari ziren Arrasateko Eskola Politeknikotik etxerako bidean zetozen, baina patruak etorkizunik gabe utzi zituen. Zuek, gazte horien guraso eta lankide zaretenok, jakin ezazue une latz hauetan zuen ondoan gaituzuela.

Azkenik, lanean ari ziren beste bi bazkide ere galdu ditugu, Jose Manuel Copete eta Jose Antonio Madina, eta haiek ere gogoratu nahi ditugu. Gogoan izango zaituztegu beti. Gure ondoan ez zaudetela ikustek min ematen digu.

Planta berria ULMA Handling Systems negozioarako; arkitektura eta artea, bat eginik

■ Lanei orain arteko erritmoan eutsiz gero, datorren udazkenerako ULMA Handling Systems negozioaren planta berria inauguratzea espero da. Eraikuntza-lanetan atzerapenak ekarri dituzten zailtasun batzuei konponbidea eman ondoren, eraikin honek Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiririari (CUT) hasiera emango dio. Ekimen handizalea da, ULMAren garapenerako etorkizuneko eragingarri modura, teknologia altuko enpresen garapena sustatu nahi duena eta balio erantsi handiko enplegu-tipologia berri bat duena xede. ULMA Taldearen Berrikuntza eta Garapen Zentroa eta ULMA Handling Systems negozioaren planta berria dira, hain zuzen, CUT konplexuaren garapenerari hasiera emango dioten lehenengo bi proiektuak.

ULMA Handling Systems negozioaren planta berriak, LKS Ingeniaría etxeak proiektatu duen planta berri horrek, produktu berriak eta sistema logistiko-

ak garatzera zuzendutako berrikuntza-lantegi bat (I+G+b) hartuko du, eta baita 120 profesionalentzako lekua duten bulegoak ere. Eraikinak forma tinkoko estetika izango du, eta material opakoak eta zeharrargiak erabili dira; aberastasun formal handiko barrualdeak sortzen laguntzen duten materialak dira, biak ere. Batzuen iritziz, "Oteizarengan inspiratutako" eraikina da, materiaren eta espazioaren artean, barruaren eta kanpoaren artean, argiaren eta ilunaren artean halako eztabaida bat sorrarazten duena.

Jarraibide estetiko horietan oinarrituta, ULMA Hormigón Polímero negozioak eraikin berriaren aurrealdea estaltzeko plaka berezi batzuk egin ditu. "ULMA Handling Systems negozioak arkitektura artearekin lotzeko izandako ideia horren berri eman zigun LKS Ingeniaría etxeak", adierazi digu Juan Carlos Txintxurretak, ULMA Hormigón

Polímero negozioiko Aireztatutako Fatxaden Lineako Zuzendariak.

"Planteatu zitzaigun dema akabera berezia lortzea zen, korten altzairuaren oroimen estetikoak izango zuena. Material hori gure kulturako hainbat pertsonaia garrantzitsuk erabili dute; Txillidak, adibidez, 1954an Arantzazuko basilikaren ateetan erabili zuen; eta Oteizak 1957an, La Construcción Vacía lanean, gaur egun Donostiako Pasealeku Berrian dagoen irudi horretan", dio Txintxurretak.

Materialak bateratzeko probak, kolore probak eta materialari halako zahartze-prozesu bizkortu bat ezarri egiten diren iraupen probak egin ondoren, emaitza hauxe izan da: azal zimurtuko hormigoi polimerozko plaka bat garatu zen, herdoil itxurakoa, 5 kolore nahastuz tantakako sistemaren bidez.

Irudi hauetan ULMA Handling Systems negozioaren planta berria eraikitzekeo prozesuko zenbait une bereiz daitezke.



ULMA Carretillas Elevadoras negozioak ordezkaritza zabaldu du Sevillan

Aurten, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak bere merkataritza-sarea sendotzeko apustu garbia egin du, zuzenean eta hurbiletik, Araba inguruan eta Andaluziako Mendebaldean dauden enpresetan esku hartzeko bi ordezkaritza zabalduz. Begira aldizkariaren aurreko edizioan Urbinako Jundiz industrialdean zabaldutako Arabako Ordezkaritza berri eman genuen; oraingo honetan, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak Andaluziako Mendebaldean, Sevillatik 11 kilometro dagoen Torre de la Reina industrialdean, zabaldu duen ordezkaritza bidez bere gain hartutako ahalegin eta konpromisoaren berri eman nahi dugu.

Ordezkaritza berri horretan lan egingo duen ULMAko talde berriak ahalik eta modurik lasterrenean eta eraginkorrean laguntza teknikoa, aholkularitza komertziala eta igotzeko eskortze zuzendutako konponketa orokorren zerbitzua eskainiko dizkie Cadizen, Kordoban, Huelvan eta Sevillan kokatutako enpresei. Araban eta Andaluzian ordezkaritza zabalteko arrazoia inguru horietan merkatuko eskariak haztea izan da, baina horretan zerikusi handia izan du ULMA Carretillas Elevadoras negozioak bere bezeroekin gero eta harreman hurbilagoa eta estuagoa izateko azaldu duen gogoak ere, merkatuko beharren arabera gero eta handiagoa den profesional tekniko eta komertzialen plantillaren bidez.

Belaunaldi berriko **ijezkailu berriak** ekin dio bere ibilbideari **ULMA Forja** negozioan

Gaur egun, hainbat proba egiten ari dira, eta lehenengo fasean, ijztekko makinaren kalibrazioa egiten ari dira; xede horretarako, gasezko labean ezarri da eta mekanizatutako aurreformak egin dira. Ijztekko makinari eskuz lotu zaizkio aurreformak, pintza hidrauliko hornitutako igotzeko makina baten bidez, eta era guztietako eraztunak egin dira, kalibrazio egokia lortu arte. Proben fase horretan, 1.330 kg arteko aurreformak ezarri dira, eta ijztekko sendo probatu da; hiru metro arteko uztaiak ere ijztu ditu.

Gure katalogoko lau erreferentzia erabiliz, makinari egindako harrerako saiakuntzetan elikadura erabat automatikoa izan da, eta Kuka robot antropomorfoak erabili dira horretarako.

Ijztekko makinaren hustuketan ere automatikoki egiten dira, antzeko ezaugarriak dituen beste robot baten bidez, eta honek piezak pilotuta uzten ditu, paletak erabat osatuta utziz. Puntu hori garrantzi handikoa da, horrelako dimentsioak dituzten piezek har dezaketean tokia aintzat hartuta.

Pieza baten kasuan (Blind 20" 150), ijzteketa-prozesu osoa erabat automatikoki egin da, makinako operadorearen esku-hartzerik gabe. Blind bat ijztekailu batean automatikoki egiten den lehen aldia da, eta aurrerapen teknologiko handia adierazten du horrek. Orain Wn 24" 150 ereduarekin ari dira lanean, 200 kg profil ijztekua duen pieza horrekin.




ULMA Packaging negozioa Packaging arloko munduko azokarik handiengan, **INTERPACK** azokan

■ Apirilean, Dusseldorf (Alemania) ontziratze makineriara zuzentzen den INTERPACK azokaren XVII. edizioa izan zen. ULMA Packaging negozioak bere produktu-linea osoko azken berrikuntzak aurkeztu zituen bertan, eta azoka hori aukeratu zuen mundu osoko filial eta banatzaileak elkartzeko puntu modura. 350 m²-ko erakusma-



haien soluzio berritzaileak aurkezteaz gain, ULMA Packaging-ek ingeniarietza-proiektuak kaleratu zituen, eta ontziratze zenbait lineatan soluzio integralak eskaini zituen. Enbalajerako makineriaren sektorean erreferente bihurtu da munduan azoka hau, handia izateaz gain -174.000 bisitari eta 2.557 erakusketari-, kalitate handikoa baita.



ULMA Construcción negozioak **Madrilgo SYV Dorrearen eraikuntzan parte hartu du.** SYV dorrea da ULMA

Construcción negozioaren Madrilgo ordezkartzaren azken proiektu handiena. Etxe-orratz hau eraikitzeko lanak hiru urtean amaitzea espero da. Sestramailaren gainetik 55 solairu izango ditu eraikinak, eta 250 metroko altuera eta 52.672 metro koadro azalera; gainera, sestramailaren azpitik dauden beste 45.000 metro koadro erantsi behar zaizkie. Dorrearen gune zentrala altxatzeko, "Sistema Auto-igokaria" deritzona erabiliko da, eta solairuen egiturak egiteko "CC4 Enkofratu Horizontala". Obra handi honi gogoz egingo diogu jarraipena, orrialde hauetan beronen bila-kaerari buruzko berriak emango dizkizuegu, horrelako lanetan teknologia berri horren aplikazioan emaitza bikainak aurrerakosten zaizkion sistema AUTO-IGOKARI berri hori hobeto eza-gutzeko.



ULMA Carretillas Elevadoras, Construcción eta Hormigón Polímero negozioiek Construmat – 05 azokan izan duten esku-hartzearen balioespena

Apirilean Bartzelonan egindako Construmat 05 azokan esku hartu zuten lehen aldiz ULMA Taldeko hiru negozio hauek: Carretillas Elevadoras negozioak, Construcción negozioak eta Hormigón Polímero negozioak. Guztien oniritzia izan du azokak, eta jarduera-sektore bakoitzean izan dituzten askotariko harremanak azpimarratu dituzte.



ULMA Packaging negozioak instalazio berriak inauguratu ditu MADRILen



Martxoan, ULMA Packaging negozioak bulego berriak inauguratu zituen San Sebastián de Los Reyes hirian (Madril). 150 m²-ko azalera dute. 11 profesional biltzen dituen taldeak azkar eta modu pertsonalizatuan erantzuten die Espainiako erdialdeko eskaerei. San Sebastián de los Reyes hirian (Madril) kokatutako ULMA Packagingen ordezkaritza honek egitura sendoa du, bezeroen beharrei bi alderdi hauetatik erantzuteko: ontziratze-sistemei buruzko aholkularitza, batetik, eta salmenta osteko zerbitzua, bestetik. Barnealdetik begiratuta, erdialdeko ordezkaritza hau hiru esparruk osatzen dute: Administrazioak, Merkataritza adarrak eta Laguntza Teknikoko Zerbitzuak. Esparru geografikoari dagokionez, jarduera-eremuan Madril ez ezik probintzia hauek ere sartzen dira honen barnean: Segovia, Guadalajara, Cuenca, Ciudad Real, Toledo, Cáceres eta Ávila. Azkenik, beste eremu batzuekin alderatuta nahiko txikitzat har daitezkeen eremu horretan bezero izan daitezkeen horrenbeste eragile biltzen direla ikusita, ULMA Packagingek espezializazio-programa handi bat jarri ahal izan du abian, bai Merkataritzaren arloan eta baita Laguntza Teknikoko Zerbitzuan ere. Horrez gain, programa horrek gure komertzialei eta teknikariei espezializazio handiagoa izateko aukera emango die. Eta horren ondorioz, ULMA markaren berezigarriari eutsi ahal izango zaie, gainerako lehiakideen aurrean.



ULMA Construcción Txileko EDIFICA 2005 azokan

ULMA Construcción negozioak, Txileko filialaren bidez, herrialde horretako eraikuntzaren arloko azokarik handienean, EDIFICA 2005 azokan, esku hartu zuen, maiatzean. 25.000 m²-tan hainbat erakusketari bildu zituen azoka horrek 30.000 bisitari inguru izan zituen. ULMAk 250 m²-ko erakusmahai jarri ahal izan zuen kanpoaldean, eta hainbat material erakutsi zuen bertan: ORMA enkofratu modularra, COMAIN enkofratu eramangarria, Cimba T-60, BTM habeen enkofratu horizontala, fatxadako DORPA aldamiola eta BRIO, Txileko merka-

tuan goren tokian dauden produktua, guztiak ere.

Hego Amerikan egiten den sektoreko azokarik garrantzitsuen da EDIFICA, eta hainbat herrialdeko ingeniariak, arkitektoak eta eraikitzaileak biltzen dira bertan, besteak beste Brasilgoak, Kolonbiakoak, Argentinakoak, Perukoak eta Erdialdeko Amerikako herrialdeetakoak. Azken urteetan, ULMA Construcción-ek Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan egindako lana argi eta garbi ikusi da hainbat herrialdeko bisitarien ULMAko erakusmahaiari egindako bisita kopuruan; izan ere, batez beste egunean 300 bisitari izan ditu.



Jada abian da ULMA Hormigón Polímero negozioaren produkzio-linea berria.

Martxoaren 22tik jada lanean ari da ULMA Hormigón Polímerorako produkzio-linea berria, duela gutxi xede horretarako eraikitako 4.300 m²-ko pabilioian. Begira aldizkariaren aurreko edizioetan genionez, otsailaren amaieran pabilioi berria handitzeko lanak amaitu ondoren, hurrengo pausoa linea berria abian jartzea izan da, eta gaur egun bi txandatan lan egiten duten 16 langile ari dira zeregin horretan. Gaur egun, Eraikuntzako piezak egiten ari dira linea horretan, baina hainbat baliotarako prestatuta dago, eta lan askoko uneetan kanalizazio-piezak egiteko ere gai da. Lehenengo fase honetan moldekatze-zirkuitu bat ezarri da; eta maiatzaren amaierarako piezen desmoldeaketa eta mekanizazioa ezartzea aurreikusita zegoen.

ULMA Taldeak bere antolaera hobetu du, Intranet sare baten bidez

Bazkide guztien arteko lankidetzaz, parte-hartzeaz eta informazio-trukeaz sustatuko ditu.


■ ULMA Taldeak Intranet sare bat abiarazi du (<http://portal.grupo.ulma.es> helbidean). Barne-antolaketa sustatzeko oso baliagarria den tresna bat da, eta bazkide guztien arteko lankidetzaz, parte-hartzeaz eta informazio-trukeaz sustatzen ditu. Intranet sarea ikas-kuntzarako antolaera bat da, jendea, prozesuak, prozedurak eta printzipioak biltzen dituena, intelektualki kultura sortzaile bat eratzeko asmoz;

gainera, antolaketa hori eraginkortasun osoz ezartzeko modua ematen du. ULMA Taldearen Intranet sareak bi atal ditu:

> Lankidetzaz Ataria: lankidetzari eta iritziei zabalduzako gunea bat da, batzordeen eta organoen jarduerak kudeatzeko, adierazpenak eta iradokizunak egiteko, elkarrizketa-foroak edo inkestak egiteko eta beste hainbat gauzatarako erabil daitekeena.

> Ezagutza Ataria: informazioaren banaketan oinarritutako gunea hau ideala da ULMA Taldean gertatzen den guztiaren berri izateko. Gainera, berrien atala etengabe eguneratuta izateaz gain, ULMA Taldearen txostenak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko aukera ematen du, besteak beste, bibliografiak, artikulua edota deialdiak.

--- Lankidetzaz Ataria: parte hartu/ iritzia eman



--- Ezagutza Ataria: informazioa jaso



"Intranet sarearen soluzio teknologikoa Microsoft teknologiarekin garatuta dago erabat. Horretarako, Windows Server 2003 ingurunean, Share Point Portal Server 2003 tresna erabili da, Ataria eta bertako Guneak egiteko, eta SQL Server, informazio osoa bilduko duen datu-basea egiteko. Lanpostu batetik Intranet sare horretan sartzeko, nahikoa da egungo nabigatzailearen bat erabiltzea: Microsoft etxearen Internet Explorer (ahal izanez gero 6.0 bertsioa edo ondorengoa) edo aurrekoarekin bateragarria den beste edozein nabigatzailea, Netscape 7.0 edo ondorengoren bat, adibidez", (Manu Gorospe, ULMA Taldeko IKTen arloko koordinatzailea).



ULMA Carretilas Elevadoras negozioko kirolari finenek Aloñako igoeran parte hartu zuten bosgarren urtez, bizikleta gainean nahiz oinez. Aurten, txapela Erik Fuentesek jantzi zuen. Taldeak egindako ahaleginaren saritzat, Oñatiko elkarte batean bazkaria egin zuten, indarrak berritzeko ez ezik igoeraren nondik norakoez lasai hitz egiteko. Irudietan, ULMA Carretilas Elevadoras negozioko kirolarien taldea.

ULMA Forja negozioak 800 mm arteko diametroko Briden Mekanizazio Zentroa abian jarri du

■ ULMA Forja-n aurtengo ekitaldirako eta iazko urtekoei jarraipena emanez ezarritako helburuen barnean, bada bat garrantzi handia eman zaiona: 24 mm arteko briden gama forjatzea eta mekanizatzea.

Honen garapenez arduratzen den taldeak Mekanizazio Lantegian egindako lanaren emaitza modura, ekainaren erdialderako 24" 150 arteko briden mekanizazio linea abian jartzea aurreikusi du ULMA Forjak, eta linea hori bi tornuk, bi mandrileko zulatzeko makinak, abeilanatzeko makinak, markatzeko makinak eta pintaketa instalazioak osatzen dute; bertan izango dira, halaber, maneiatzeko elementuak ere, besteak beste Fanuc etxeko bi robot antropomorfo, sei graduko



askatasuna eta 600 kg arteko pisuetarako gaitasuna dutenak. Horrelako ezaugarriak dituzten robotetan European Japoniako enpresa matrizeari egin zaion lehen eskaera da.

Prozesuaren erabateko automatizazio-sistematika batean oinarritzen da linea honen osaketa, eta brida zamaketa-zonan sartzen denetik paletetan amaituta eta prest utzi arteko prozesu osoa hartzen du. Linea horrek berrikuntza teknologiko garrantzitsuak aurkeztu ditu, eta horietako zenbait erabat berritzaileak dira; adibidez, robotetan aplikatutako neurketa-sistemak erabiliz mekanizazio aurretik gordinean bridaren kotak neurtzea, edota pieza gordinaren aldakortasuna aintzat

hartuta, mekanizazio-programa bridaren neurri berezietara doitzea.

Gainera, lineako elementu guztiak bertako Ethernet sare baten barnean txertatuta eta komunikatuta daude, eta prozesu osoa zuzentzen duen PC batetik abiatuta, lana modu koordinatuagoan egiteko informazioa ematen du horrek. Gakoen plateretan bridaren lokailuaren neurketa erreala kontrolatzeko sistema bat dauka, eta baita pintza-robot adimenduenen multzo bat ere. Horri esker, pintura-instalazioan sartzen ari den brida eta irteten ari dena desberdina denean sortzen diren egoerei irtenbide teknikoak emateko modua dago, eta robot-pintza binomioa brida bakoitzera moldatzeko gai da.

ULMA Construcción Smopyc 2005 azokan



ULMA Construcción negozioak martxoaren 1etik 5era Zaragozan egin zen SMOPYC azokan parte hartu zuen. ULMAk obra zibiletarako eta bizitegiz besterako eraikinetarako produktuak erakutsi zituen bertan. 352 m²-ko erakusmahaietan, aluminiozko CC4 enkofratu horizontala, ALPROP aluminioko eskoraduna, eta Mesa VR enkofratua, EP eskora europarra duena, jarri zituen

erakusgai. 2005eko SMOPYC azokako parte-hartzeari dagokionez, arrakasta handia izan du, bai bisitari kopuruari begira eta bai bisitari motari begira. Atzerriko bisitarien kopuruak % 8 egin du gora, eta beraz, azokak gero eta ordezkartza handiagoa biltzen du sektore honen barnean, bai erakusketaren arloan eta baita bisitari profesionalen arloan ere.

ULMA Carretillas Elevadoras negozioak oroigarria eman dio Tallers Caralt Tarrés enpresari, egin duen lan komertziala eskertzeko

ULMA Carretillas Elevadoras negozioak urteko banatzaierik onenari ematen dion oroigarria Tallers Caralt Tarrés enpresari eman dio. Enpresa hau ULMAren Kataluniako ordezkartzaren zerbitzu ofizial modura ari da lanean 2004ko urtarriletik, Osona eskualdean (Bartzelona). ULMAren banatzaile modura egin duen lehenengo urtean, sari hori bereganatzea lortu du Caralt Tarrés enpresak, iazko urtean egin duen lan eredugarriari esker. Ahalegin horren emaitza hauxe: bere ibilbide luzean lortutako salmenta mailarik handiena lortu du, eta izen handiko zenbait enpresak, Casa Tarradellas enpresak edo Bon Preu supermerkatuen kate kataluniarrak, adibidez, beregan jarri dute konfiantza osoa. Caralt Tarrés enpresari eman zaion oroigarri hori, ULMA gero eta enpresa gehiagoren pentsamoldean aholkularitza logistikoa




esparruan erreferente izan dadin egin duen lanaren esker onez eta egindako merituagatik eman zaio, horri esker bezero bakoitzak hurbilago, eskuragarriago eta konpromiso handiagoarekin sentitu baitu. Caralt Tarrés eta honen antzeko enpresei esker, ULMAren sare komertzialak, ordezkartzek, banatzaileek eta zerbitzu ofizialek osatzen duten sare horrek, laguntza teknikoko zerbitzua eta aholkularitza logistikoa profesionala azkar eta modu eraginkorrean erabiltzeko aukera ematen du, eta zalan-tzarik gabe, horrek zuzen-zuzenean eragin du biltegi banean garatzen diren aplikazio eta lanetarako barruko eskergen salmentetan 2004. urtean nabarmendu den gorakadan. Irudietan, ULMA Carretillas Elevadoras negozioko gerentea Caralt Tarrés enpresako arduradun eta jabea oroigarria ematen ageri da.



ULMA Taldeko Batzarrak eman dio amaiera gure kooperatiben ohiko batzar nagusien urteko zikloari.

Ekainaren 16an, ULMA Taldeak Santa Ana aretoan egin zuen Batzar Nagusiarekin amaitu zen gure kooperatibek aurtengo maiatzetik ekainera bitartean egin dituzten batzarren zikloa. Irudietan, ULMA Taldearen batzarren une bat, Santa Ana aretoan.

ULMA Packaging negozioak elikagai energetikoak ontziratzekeo proiektu bat garatu du



Haurren elikadurara zuzendutako produktu energetikoak zamatu, banaka ontziratatu eta erabiltzeko prozesu automatiko bat da.

■ ULMA Packaging negozioak Nocicao deritzon proiektu berritzaile bat garatu du, haurrei eta gazteei zuzendutako produktu energetikoak zamatu, banaka ontziratatu eta erabiltzeko prozesu automatiko batean oinarritzen dena. Produktua kodifikatutako kartoizko kaxa batean dator, 24 unitate sartzen dira kaxa bakoitzean, eta unitate bakoitza ere kodifikatuta dator.

ULMA Packagingen lana plastikozko sei ontziren ekoizpenarekin hasten da; bi gune ditu ontzi horrek, bata kakao-kremarako, eta bestea ogi-zotzetarako. Gune horietako batean automatikoki ogizko 10 zotz sartzen dira, lerrokatu eta zenbatzeko sistema automatiko baten bidez, aurrez tobera batean soltean sartu ondoren. Hurrengo gunean 25 gr kakao-krema sartzen dira.

Ondoren, ontzi horiek ondo ixten dira tapa baten bidez, eta iraungitze-data ezartzen zaie. Ondoren, ontzi bakoitza unitateka ebakitzen da. Metalak detektatzeko azterketaren ondoren, sei unitateko multzoak manipulazio-unitatera doaz, eta han 12ko multzoetan biltzen dira.

Lerro zuzenetan mugitzeko sistema bat, posizio askotako ardatz elektriko bat eta bi mugimenduko eta 12 bentsosako pintza bat dituen maneigailu



baten bidez, ontziak tokiz aldatzen dira, kaxetan sartu ahal izateko. Eskuz hornitzen da hau, eta orga batean ezartzen da, zamaketarako posizioan uzteko.

Zamatu ondoren, maneigailuak 12 ontzi multzokatzen ditu lau mailatan, eta orgatik irteterakoan, sorta osoa kodifikatzen da. Motorezko biltegi-ratze-zonan, kaxa eskuz ixten da eta ondo itxita uzteko zonara eramaten da. Elikagailu automatiko baten bidez, ondo itxita uzten da eta, ondoren, labe batean, akabera ematen zaio. Azkenik, labetik irteten denean, produktuak metatzeko zona bat dago, eta bertan, eskuz, paletetan uzten da.

Ezaugarri teknikoak

- > **Ogizko zotzak ezartzeko abiadura:** 1.000 zotz/ min.
- > **Banakako unitateak ebakitzea:** 90 ontzi/min.
- > **Kaxa-kopurua:** 4 unitate/min.
- > **Hilabeteko produkzioa (8 orduko bi txanda):**
3.900 kaxa egunean
85.800 kaxa hilabetean
2.000.000 banakako ontzi hilabetean
- > **Inbertsioa:** 500.000 €
- > **Bezeroa:** Nocicao S.L., Motmeló (Bartzelona)

ULMA Carretillas Elevadoras eta ULMA Handling Systems negozioiek soluzio logistikoak aurkeztu dituzte Bartzelonan sektoreak egin duen nazioarteko azokan

■ Maiatzean, ULMA Carretillas Elevadoras eta ULMA Handling Systems negozioiek logistikan eta mantenuaren arloan beren soluziorik aurreratuenak aurkeztu zituzten SIL azokan. Biltegiratze eta Mantenuako Soluzio globalak leloa gidarizat hartuta, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak SIL azokan bere eskaintza zabala aurkeztu zuen, bere produktuak bertaratutako bezeroen beharretara egokituz. ULMAk erakusketan Mitsubishi jasomakinen aukera zabala erakutsi zuen; biltegi barnean nahiz biltegitik kanpo zamak erosotasunez eta modu eraginkor eta errentagarrian erabil daitezke, salgaien harrera, garraio eta igorpen, metaketa, biltegiratze eta eskarien prestaketa- prozesuko lan eta aplikazio guztiak betetzeko. Zehazki, SIL azokan aurkeztutako eskorgen gama hori eskorga erretraktilek, pilotzaileek, eskariak hartzeko makinak, transpaleta elektrikoek eta N serieko diesel kontrapisatu berriak osatzen dute; azken horrek, gainera, laneko segurtasunari lotutako eskarien arabera, oso garatuta dagoen segurtasun-sistema bat du, eta beronen Deluxe kabina eraisgarriak topagune logistiko horretako hainbat bisitari erakarri zituen. Sektorean ez dira asko ULMA Carretillas Elevadoras negozioak eskain dezakeen gama osoa, CA teknologiaz hornitutakoa, erakuts dezaketena. Gainera, urte amaierarako bost tona arteko korrante alternoko eskorga elektriko berriak merkaturatzea aurreikusi du.

Bestalde, ULMA Handling Systems negozioaren ezaugarrietatik Logistikako Nazioarteko azoka honetan Berrikuntza, Esperientzia eta Teknologia nabarmendu ziren. Handling Systems negozioak garatzen ari den politika berritzailea ezagutarazi zion jendeari, Sailkapen Automatikoko sistema berritzaile eta bakarra duen Surfing Sorter Mini sistemarekin horretantxe ari baita buru-belarri. Osagai txikiekiko eskariak prestatzeko inguruetarako diseinatutako sailkapen-sistema automatiko



honek orduko 7.000 pieza arteko fluxu-gaitasuna du, eta aurrez sistemari pikatu edo induzitu diren elementuak oso azkar sailkatzeko modua ematen du. Iñaki Arriolak, ULMA Handling Systems negozioko gerenteak, azaldu digunez, "edukiera txikiko eskariak (50 g-tik 5 kg-ra bitartekoak), blisterrak eta horrelakoak, prestatzeko diseinatutako sistema berritzailea da, eta eragiketetan zorroz eta azkar jokatuz, lehiari begira abantaila handiak ditu, prozesu osoa kontrolatzeko modua ematen du, eta sareko informazioa lantzeko aukera ere eskaintzen du". Eskariak prestatzeko sistemen automatizazioan hobetzea izan da ULMA Handling Systems-en ezaugarrietariko bat. Esate baterako, duela gutxi TOYOTA, CITROEN, PEUGEOT eta antzeko enpresetan ezarritako Pick to Light teknologiaren aplikazio berriak izan ziren SILen zazpigarren edizio honetan aurkeztutako beste berrikuntza batzuk. Pick to Light teknologia halako sinpletasun harrigarri batez hornituta dago, eta horri esker, sistema pertsonalizatuak, picking, sorting eta muntaia eragiketa guztietara moldatukoak, egin daitezke, hainbat jarduera-sektoretan. ULMA Handling Systems negozioak ICIL fundazioak antolatutako erakusketan ere parte hartu zuen; bertan, metatutako azpilletarako diseinu eskusiboko biltegiratze-sistema automatiko bat erakutsi zuen, ULMAko Biltegi Kudeaketako Sistemak zuzentzen duena. Sistema horrek berrikuntza bat ekarri du, nekazaritza eta elikaduraren sektorean Just in Time lan egiteko gaitasuna baitu.

ULMA Taldearen **web orrialde berria** martxan da



■ Duela gutxi, ULMA Taldeak web orrialde berria jarri du abian, eta orri horrek ULMA Taldeaz eta talde horretako negozioez zerbait gehiago jakin nahi dutenen topagune izan nahi du. Orrialdeak, intuizioz, azkar eta modu dinamikoan erabiltzeko moduko menu baten bidez, ULMA Taldeari buruzko informaziorik garrantzitsuena erakusten du. Gainera, badu sarean berriak eguneratzeko aukera ematen duen edukien kudeatzaile bat ere. Orrialdean sartzeko, kooperatibaren home gunera jo daiteke, www.ulma.com helbidera, eta ULMA Taldearen gain klikatu; edota zuzenean www.ulma.es helbidera jo daiteke.



ULMA Construcción negozioak **goi mailako enpresa-harremanak ditu Perun**. Irudian, Peruko Presidentea, Alejandro Toledo, ULMA Construcción negozioko Gerenteari, Carmelo Bilbaori, agur egiten.

ULMA Construcción negozioaren nazioartekotzea saritu du **Gipuzkoako Ganberak**



Irudian, Carmelo Bilbao eta Cristóbal Álvarez Sariarekin.

Maiatzaren 13an Zestoako Bainuetxean Gipuzkoako Ganberak urtero industriari eta zerbitzu-enpresei eskaintzen dizkien sarien XIII. edizioa izan zen. Edizio horretan, ULMA Construcción negozioak saria jaso zuen, nazioartekotzearen esparruan egin duen ahaleginagatik. Ekitaldi horretan parte hartu zuten, besteak beste, Carmelo Bilbaok, ULMA Construcción negozioko gerenteak, eta Cristóbal Álvarezek, orain arte nazioartekotzearen arloko Zuzendari izan denak. Biek jaso zuten saria, Gipuzkoako enpresa, ekonomia eta politika munduko beste zenbait ordezkarekin batera. 430 gonbidatu inguru bildu ziren, inoiz baino gehiago, eta

horrek argi erakusten du Gipuzkoako gizarteak sari horri ematen dion balioa. ULMA Construcción negozioak nazioartekotze-prozesu bizia izan du azken urteetan, eta kanpoan halako presentzia txiki bat izatetik (1993an fakturazioaren % 2) eraikuntza eta obra zibilen sektorean munduko hiru konpainia handienetariko bat izatera irisi da. ULMA Construcción negozioak 16 filial ditu, European, Asian eta Amerikan, eta lau produkzio-planta ditu, Brasilen, Txilen, Polonian eta Italian. Kanpoko fakturazioak jada fakturazio osoaren % 40 adierazten du. Orain, helmuga nagusiak Mexiko, Txina, India, Indonesia, Aljeria eta Dubai dira.

Panter etxeak ULMA Handling Systems negozioaren esku utzi du berriro bere sistema logistikoaren automatizazioa

■ Alacanteko Industrial Zapatera taldeko kide den PANTER oinetako etxeak, oinetakoen industrian barne-logistikaren automatizazioan aitzindari izan den etxe horrek, berriro ere ULMA Handling Systems negozioan jarri du bere konfiantza osoa, sistema logistiko bat automatizatzeko orduan. Ramón Pajaresek, Panter etxeako kontseilariak, helburua hauxe dela dio: *"bezeroaren beharrei azkar erantzutea. ULMA Handling Systems negozioaren soluzio automatizatuaren bidez, une oro dauden produkzio-beharrak aurreikus ditzakegu, stocka bermatuta daukagu, eta salgaien igorpenari lotutako atzerapenak saihesten dira"*.

Testuinguru horretan kokatu behar da 2000. urtean PANTER-ek hartutako erabakia, ULMA Handling Systems negoziari orduan eskatu baitzion lehen aldiz bere instalazioetan biltegi automatiko baten bideragarritasunari buruzko azterketa egiteko. "Barne aldetik iraultza bat izan zen, eskuz egiten zen logistika hura utzita, gure fabrikazio eta biltegiatze-prozesuak hobetzeko aukera ematen zigun informazio fidagarriarekin lan egiten hasi baikinena", dio Pajaresek. Eta berriro ere, berrikuntzaren eredu bihurtu zen enpresa, sektoreko beste enpresa batzuentzat: biltegi automatikoak zeuzkan lehen fabrikatzailea izan zen eta, ondorioz, antzeko beste erakunde batzuentzat arrakastaren eredu bihurtu zen.

Orain, erronka nagusia paleta eta azpiletarako biltegiatze-sistema automatiko bat ezartzea da, eta baita DPS (Digital

Picking Systems) bidezko eskariak prestatzeko sistema bat ezartzea ere, intuizioz eta azkar lan egiteko aukera ematen duena, eskatzen den kopurua garbi azaltzeaz gain, artikululu bakoitzaren pick edo harrera berrestea eskatzen baitu. 2000. urtean ULMA Handling Systems-ek PANTER-en ezarritako biltegi automatikoak 110.000 pare biltegiatze gaitasuna du, eta bigarrenak, hemendik hilabete batzuetara abian jarriko denak, 70.000 pare gehiago biltegiatze aukera emango du. Zortzi hilabetean lanean hasiko da, proiektu osoak dituen fase guztiak barne hartuta: aholkularitza, plangintza eta ingeniarietza, proiektua gauzatzea, aplikazio informatikoaren garapena eta sistemari esleitutako pertsonalaren prestakuntza.

"Gure izakinei buruz une oro informaziorik onena izateko gaitasunari garrantzia eman diogu, eta denborak arrazoia eman digu. Gaur egun, kalitatea edo prezioa bezainbeste balioesten da bezeroari eskaini diezaiotzekun informazioa", azaldu digu Pajaresek, eta sistemak egindako beste hainbat ekarpen aipatu ditu, batez ere ekoizpen-prozesuaren eta stock-aren kontrolaren arrazionalizazioaren esparruan.

Sistemaren prestazio horiek guztiak konpainiari lehiatzeko abantaila handiak ekarri dizkiote, bezeroei begira: fabrikatzen duen edozein erreferentziari buruz denbora errealean erantzuteko gaitasuna, batik bat, izan ere, sistema automatikoa ezarri aurretik edozein kontsultari erantzuna ematerako gutxienez bi egun pasatzen baitziren.





FRANCISCO GALLARDO, Alfre-ko lehenengo erretiratua.

Francisco Gallardo izan da ULMAko ALFRE S.L. muntaia-entresako lehen erretiratua. Gizon honek enpresan egin duen ibilbidearen ezaugarri nagusienetarikoak maila profesional altua eta ULMA-ALFREri erakutsi dion leialtasuna izan dira. Lan-arloan ULMArekin harremanetan 1968an hasi zen, Sevillako Ordezkaritza ireki zenean, hain zuzen, eta ULMAk bere ibilian Sevillan izan dituen enpresa guztietan parte hartu du. Egin duen ibilbide profesionalean hainbat lanpostu bete ditu: biltegizain, muntatzaile, ofizial, monitore, arduradun, etab. Guztietan ondo baino hobeto moldatu da. *Zure lankideek zorionak opa nahi dizkizute hemendik, hastera zoazen etapa berri horretan.*

BA AL ZENEKIEN...

- 2005eko lehenengo hiruhilekoan, Mondragon Korporazioaren salmentek % 9,3 egin dute gora, eta ekitaldi honen amaierarako, fakturazioan 11.500 milioi eurotara iristea espero dute; 2004koarekin alderatuta, % 8tik gorako hazkundera adierazten du horrek. 2004an 10.459 milioi eurotara iritsi ziren, eta aurreko urteari begira % 8,3ko hazkundera adierazi zuen kopuru horrek. Lortutako emaitza bateratuak 502 milioi eurokoak izan ziren, 2003an baino % 22,1 gehiago. 2004. urtean 2.624 enplegu berri sortu ziren, eta horrela, Mondragon Korporazioak iazko ekitaldia 71.000 pertsonarekin amaitu zuen. Mondragon Korporazio Kooperatiboak 4.000 milioi euro inbertituko ditu datozen lau urteetan, eta 25.000 lanpostu berri sortuko ditu; eta 2008an 17.000 milioi eurotik gorako salmentetara iristea espero da.

ULMA Packagingeko salmenta-lineetan kalitate handiko aurkezpenak

ULMA Packaging negozioak lau soldadurako ontziak egiteko makina bertikalaren eredu berri bat merkaturatu du; formatu hori plegu ingeleseko edo azpi finkoko pakete tradizionalaren bilakaera bat da, baina egonkortasun handiagoa, produktuari babes mekaniko sendoagoa eta estetikaz berezia ematea lortu da, plegu soldatuak dituzten alboko 4 nerbioren bidez.

Honen ezaugarri nagusia hau da: Marketing sailak paketearen bi aurpegiak inprimatutako komunikazio-zona gisa erabiltzeko aukera ematen du, inolako plegurik edo soldadurarik gabe.





Martín Berasategui

Martín Berasategi Donostian jaio zen, 1960an. Sukalde-lanetan alde zaharreko Bodegón Alejandro jatetxean hasi zen, amaren eta ize-baren ondoan. Gaur egun, Donostiako Kursaalera jatetxea, Bilboko Guggenheim-ekoa, Donostiako NH Aránzazu Hoteleko Kukuarri, eta Lasarteko Martín Berasategi zuzentzen ditu; azken horrek Michelin Gidan hiru izar ditu, gainera. Martín Berasategi Taldea zuzentzen du, eta Gastronomiako Sari Nazionala da.

Hauexek dira sukaldariaren platerik berrienak: foie-gras zatia kipu-la gorrien konpotarekin eginda, datil eta mendazko mami likidoa, eta ostrak kafearekin, piperrarekin eta curryarekin. Argitalpenak: "La dieta de Martín Berasategui", "El mercado en el plato" eta "El calendario de nuestra cocina tradicional", besteak beste.

"Funtsezkoa da ondo janez zoriontsu izatea"

Mundu osoan ezagun egin zara. Nora begiratzen duzu zure erretzetak egiterakoan, Euskal Herrira ala Euskal Herritik kanpora? Nire sukaldaritzaren abiapuntua lehengaia da. Plater berri bat lantzen ari naizen bakoitzean, gure lurra ematen dizkigun produktu bikainetan pentsatzen dut.

Euskal Herrian gastronomia zer da, artea ala erlijioa? Gastronomia artea da, sena, sormena eta irudimena aske uztea eskatzen duen artea, baina gure

┌
**Gatromian,
gure sena aske utzi
behar dugu**
└

produktuak merezi duten errespertuz prestatuz.

Etxean izan ezik munduko zein tokitan jan duzu hobekien? Askotan, gutxien espero duzun tokian jaten duzu ondoen. Baina beti harrapatu izan naute bat-batean, plater xume batekin, produktu paregabe batekin edo sukaldari bikain batekin harrituta uzten zaituzten toki txiki horiek. Eta profesionalen artean, lagunaren etxe guztietan, batez ere Zuberoan, Guggenheimen edo Mugaritzen.

Haurren artean gizentasunarekin eta kolesterolarekin lotutako arazoek gora egin dute, gaizki jatera bultzatzen gaituzten joerak etorri dira, eta gaixotasunak ere ekarri dituzte, ondorioz. Norena da errua? Zer egin da gaizki? Sukaldari profesionalok jendeak gero eta hobeto jan dezan eta gaizki elikatzearen ondorio diren gaixotasunak ugaldtu ez daitezen izugarri lagundu dezakegu, noski. Nik neure ekarpen txoa egin dut, duela gutxi argitaratu dudan libururekin. Funtsezkoa da ongi janez zoriontsu izatea.

Azkar bizi gara, eta lan gehiegi egiten dugu. Jan al daiteke azkar eta ondo? Bai horixe. "*La dieta de Martín Berasategui*" liburuan etxetik kanpo jaten dugunerako zenbait aholku txertatu ditut, gure elikadura hobetzen eta jango duguna hobeto aukeratzeko laguntzeko.

┌
**Gutxien espero
duzun tokian
zoragarri jaten duzu**
└

Penintsulatik irten gabe, zein inguru ari dira nabarmentzen gastronomian? Eta munduan, zein inguru dabilta goi mailako sukaldaritzaren muturrean? Espainian gaur egun edonon jaten da ondo. Eskualde bakoitza bere iraultza egiten ari da, sukaldean eta mahastietan. Nik neuk nahiago ditut itsasotik gertu dauden tokiak. Urak sentipen onak sorrarazten ditu nigan, produkturik onenak bertan daude. Munduari begira jarrita, beti harritu izan nau Asiak, kulturaren



eta gastronomiaren ikuspegitik erakutsi duen aniztasunak. Bizitzan behin bada ere hara joan beharra dago, Mekara bezala.

Zer duzu nahiago: haragia ala arraina?; gozoa ala gazia?; ardoa, ura, garagardoa, sagardoa, txakolina edo cava?; likoreak, purua edo kafea? Arraina. Gazia. Ura, sagardoa, txakolina. Habanako Montecristo bat, brandy urtetsu bat, eta kafea, ahal bada motza.

┌
**Munduko
unibertsitaterik
politena dauka
Oñatik**
└

Ezagutzen al duzu Oñati? Ezagutzen al duzu ULMA Taldea? Munduko unibertsitaterik politena dauka Oñatik. Lagun asko ditut han. Eta gastronomian aniztasun handia du, merezi duen ingurua da. Euskal Herri osoan ekimen, indar eta sormen handienetarikoa duen lurralde batean bizi zaretela uste dut.

Azkenik, Martin, zer aholku emango zenieke luzaro eta sukaldaritzaz gozatuz bizi nahi dutenei? Bizitzan eskuzabalak izateko esango nieke, elikadurari dagokionez neurritz jokatzeko, eta barre asko egiteko. Funtsezkoa da hori. Barre egiten duzunean, birrikak oxigenoz betetzen zaizkizu, eta gorputzeko ez dakit zenbat muskulu mugitzen dituzun. Gozamen hutsa da.



Nola hasi zen dena?

Eraikuntzarako hormigoi tradizionala baino material alternatibo aurreratuago bat, ezaugarri hobekak izango zituen, erabiliz sistema aurrefabrikatuen negozio bati ekiteko ideia garatzen ari ziren aspalditik. 1988an, zuzenean Holandatik ekarritako drainatzeko kanalak merkaturatzen hasi ziren, eta Sevillako Expo 92 erakusketarako operazio bat bereganatu zuten. Europako beste fabrikatzaile baten leihosurkiak merkaturatzen hasi ziren gero. Hurrengo urteetan, 1989an eta 1990ean, bideragarritasun-proiektu bat egin zen, eta merkaturatzeetik fabrikatze-ra jauzi egitea erabaki zen. Garai horretan Taldearen inude-planta birmoldatu zen, Otadui Gotzaina ibilbidean, eta "artisans" faseari ekin zitzaion; zenbait formulazio-probaren, moldeen garapenen eta abarren arabera lehengaiak eskuratzeko hornitzaileen bila hasi ziren ondoren. Lehenengo piezak egin ziren. 1992tik 1995era nahiko urte zailak bizi izan zituzten: alde batetik, Mineral Urtu izenpean ezagutzen zen produktua, gero Hormigoi Polimero izena hartuko zuena, erabat ezezaguna zen Espainian. Piezen kalitatea handiagoa zen, eta ondorioz, salneurria ere altuagoa zen. Bestalde, Eraikuntzaren Sektorean halako krisialdi bat izan zen, eta 1994. urtean ondo sartu arte iraun zuen krisialdi horrek. Lehengaien hornitzaileak aldatu ziren, eta horri eta fabrikazioan lortutako trebetasunari esker, formulak eta produktuak nabarmen merkaturatzea lortu zen. Produktu berri lehiakorak garatu ziren, eta hormigoizko produktu aurrefabrikatuen prezioetatik gertukoak lortu ziren. 1996an ULMA C eta E bereizi ziren, eta negozioak bere nortasuna lortu zuen horrela: ULMA Hormigón Polímero S. Coop. jaio zen. Linea automatizatu berri batean inbertsio handia egin zen, eta ekoizpen-prozesuak eta instalazioak hobetu ziren. Gainera, plantillan sartuko ziren ordezkariekin sare komertzial bat osatzea erabaki zen. 1995ean eta 1996an hartutako erabakiak oinarri-oinarrikoak izan ziren merkatu-kuota eta kokapen komertzialean aurrea egiteko beharrezkoa zen dinamika komertziala lortzeko: ezaugarri hobekak zituen materiala erabili zen, akabera estetiko hobea lortu zen, arin eta iraunkorragoa, iragazgaitza, eta prezio hobean. 90eko hamarkada amaieran, Hausnarketa Estrategikoko prozesuan planta berri bat eraikitzeko inbertsio handi bat egin beharra eta egiteko aukera identifikatu ziren, horrela, etorkizuneko hazkunde bermatzeko eta negozioaren premisak betetzeko, besteak beste: gaitasun industrial eta produktibitatea handitzea, negozio-linea berrien garapenari lekua egitea (fatxadak, adibidez) edota, garai hartan zegoen tokian inguruneari sortzen zitzaizkion kalteen eta eragozpenen arazoei irtenbidea ematea. 2001. urtean inauguratu zen planta berria.



Konpromisoa, Talentua eta Lana

ULMA Hormigón Polímero negozioak 15 urte baino gehiago daramatza Eraikuntzaren Sektorean lanean, eta aditua da Hormigoi Polimerozko piezen diseinuan eta fabrikazioan; hiru negozio-linea ditu, eta hiruren oinarri komuna materiala da. Hormigoi Polimeroa silize eta kuartzozko agregatuekin egiten den material bat da, poliester-erretxinarekin nahasten dena. Material horren ezaugarri nabarmenatarikoa arintasuna da. Gainera, gai kimikoen aurrean erresistentzia handia du, iragazgaitza da, ez du pitzadurarik, eta horri esker, iragazketa, eta beraz, eraikuntza-kalteak saihesten dira. Izozte eta urtze-aldiek ez diote eragiten, eta talken eta urraduren kontra erresistentzia handia du. Oso egokia da aurrefabrikatuetarako, eta beraz, ezartzeko orduan erraz maneia daiteke. Kalitate handiko materiala da. Gainera, Hormigoi Polimeroa kimikoki inerte da, eta erabat birziklagarria; beraz, beste aplikazio batzuetan ere erabil daiteke, errepedetan, adibidez. Enpresa hiru segmentutara zuzentzen da: Kanalizaziorako Aurrefabrikatuetara, eta jariakinen kanalizaziorako nahiz instalazioen eta zerbitzuen eroanbideetarako soluzio ugari eskaintzen ditu horrek; Eraikuntzarako Aurrefabrikatuetara,

eta hainbat produktu daude honen barnean, besteak beste, leihosurkiak, horma-txapelak, azpadurak, ate eta leihozangoak, xurrutari edo gargolak, eta horrez gain, bezeroaren beharrak abiaburutzat hartuta, neurria egindako soluzioak; eta Aireztatutako Fatxadetarako Aurrefabrikatuetara, aireztatze-sistema duten fatxadetarako estaldura-plakak egitera.

Gaur egun, 150 lagun ari dira lanean bertan, Espainiako bazter guztietan ditu ordezkari komertzialak, eta egunez egun, nazioartean etengabe ari da aurrera egiten.

Planta berria 2001ean inauguratu zen, eta 5.500 m²-ko nabea hasi zen lanean horrela; urte horretan bertan, apirilean, pabilioi berriaren hedapen-lanak amaitu zituen, 4.300 m²-ko azalera prestatuz.

Horri esker, bezeroei zerbitzu integrala eta hurbileko sare komertzial profesionala eskaintzen zaie, eta aurretiazko aholkularitza da lehiakideen aurrean eskaintzen duen abantaila nagusienetarikoa.

ULMA Hormigón Polímero negozioak Erabateko Kalitatea du helburu, Hobekuntzako kudeaketaren hiru ardatzak hartuta oinarritzat: Helburuen Hedapena, Prozesuen Kudeaketa eta Minikonpainiak.

Juan Luis Murguzur - Presidentea

"BIZITASUN handiko kooperatiba gara, gauzak egiteko gogoia duena"

ULMA Hormigón Polímero negozioan urte gutxi badaramatzat ere, gauza asko bizi izan ditut bertan: planta aldaketa bat (Otaui Gotzaina ibilbidean ez ginen sartzen), negozio-linea berri bati ekitea (Airezatutako Fatxadak), operazio handiak, Barajas, adibidez, aldaketa logistiko handiak, plantaren hedapena (berriro ere txiki gelditu zen), Eraikuntzako moldekatze-zirkuitu berria, antolamenduari lotutako aldaketak, Hobekuntza, EFQMren lehenengo autoebaluazioa...

Finan, BIZITASUN handiko kooperatiba gara, gauza berriak egiteko eta enplegua sortzeko gogoia duena, etengabe hazten eta aldatzen ari dena. ULMAren barnean sor daitezkeen negozio berrietarako eredu garena uste dut.

Hori guztia ahalegin handia eginez, lanean ordu asko sartuz eta tentsiori eutsiz egin daiteke soilik. Hori igarri egiten da sozialki, baina nire iritziz beharrezkoa da, ULMA Hormigón Polímeroren etorkizuna bermatzeko.



Produktuak

Kanalizazioko Sistema Aurrefabrikatuak

- > Drainatzeko kanal modularrak (oinezkoen inguruetarako, ibilgailuen pasaguneetarako, instalazio industrialetarako, inguru berezietarako (aireportuak, kaiak...))
- > Kutxatila linealak eta sifoi-kutxatilik, sare-tak eta osagarriak



ERANTZUTEKO GAITASUNA:

- > soluzioetan
- > zerbitzuan
- > hurbiltasunari begira
- > oso prezio lehiakorretan

Eraikuntzako Sistema Aurrefabrikatuak

- > Leiho-isurkiak, ateburu eta leihoburuak, ate eta leiho-zangoak, azpadurak, idi-begiak, atalaseak, horma-txapelak, inpostak, forjatuaren fronteak, balkoien erremateak, moldurak, zutabeen estalkiak, xurrutarri edo gargolak, zokaloak, soluzio integralak. Guztiak hainbat koloretan eskura daitezke.



BERRIKUNTZA, PROIEKTU BAKOITZEAN:

- > soluzio berezietan
- > koloreen gaman
- > estetika modernoan
- > aplikazio berrietan

Airezatutako fatxadak

- > Fatxadak estaltzeko panelak, airezatutako sistemekin
- > Obrako instalazioa

SOLUZIO ARKITEKTONIKOAK:

- > ehundura eta formatuetan
- > instalazioan
- > zerbitzu teknikoan



Mikel Izurieta - Gerentea

"Ez gara liderrak, eta horrexegatik egin behar dugu ahalegin handiagoa"

Edizio honetan nik egingo dudana ekarpena eskura ditugun desafioak, gure negozioak etorkizunean aurrez aurre izango dituenak, labur aztertzea mugatuko da. Lehenengo Hormigoi Polímeroa garatzea da, kontuan hartuta prozesuaren aldakortasunagatik nahiko material konplexua dela baina, dituen ezaugarrietan oinarrituta, soluzio aurrefabrikatu bikainak eskaintzen dizkiola merkatuari, bai ikuspegi estatistikotik eta baita funtzionaltik ere. Ez gara liderrak. Eta horrexegatik egin behar dugu ahalegin handiagoa. Sartzen diren lehiakideengandik babesteak eta merkatuetan posizio sendo eta finkoari eusteak etengabe ikertzeraz bultzatuko gaitu, ez soilik materialaren formulazio eta jokabidearen ezaugarri teknikoari begira, baita parametro industrialen optimizazioari begira ere, horrela, kostuetan, kalitatean eta entrega-zerbitzuetan ahalik eta lehiakortasunik handiena lortzeko. Bigarren desafioa pertsonen lotuta dago. Jada pasatu dira zenbait urte halako taldeko ikuspegi bat lortzen ahalegintzen hasi ginenetik, oinarritzat parte-hartzea bultzatzen duen Hobekuntza kudeaketa hartuta. Aurrera egin badugu ere, oraindik asko dugu egiteko. Eta lanean jarraituko dugu, barruko nahiz kanpoko bezeroei zuzendutako zerbitzuen eskarien aurrean erantzuteko dugun modua hobetzeko, eguneroko bizipenetan oinarrituta. Eta geure burua ingurune aldaketa geldiezinetara azkar eta malgutasunez egokituz. Geure burua garatzen, ezagutzak, eskaerak eta konfiantza guztiongana zabalduz. Nazioartekotzea da gure jardueraren hirugarren sektore nagusia. Hazteko aukeraz gain, merkatuan arriskuak dibertsifikatzeko aukera eman behar digu, eta areago, kultura lehiakor berrietatik ikasteko eta kalitatearekin lotutako eskariak gainditzeko. Azkenik, geure burua ingurunera moldatzea da beste lan-arlo kritiko bat. Ekonomian eta gizartean aldaketa handiak ari dira gertatzen, egituren ikuspegitik. Aldaketa horiekin bat egiten ez duten enpresek, aldaketa horiei erantzuten ez dietenek eta berorien arabera egokitzen ez direnek krisi handiak jasaten dituzte, ondo dakigu hori. Eta horrelakoak iristen direnean bizirik jarraitzeko eta lanpostuari eusteko ahalegin guztiak onartzen dira, eta naturalak dirudite. Horregatik, horrelakorik gertatu aurretik, ezinbestekoa da lan egitea eta elkarrekin saiatzea.

Eguneroko denbora pixka bat aldatzera eta lehiatzea zuzentzea esan nahi du. Finan, daukagunaz baliatuz eta norberaren mugen jabe izateak ematen duen umiltasunez, egunero xede eta ilusio berriei erantzun behar diegu.



PROFIL ESTRATEGIKOA

- > Hormigoi Polímero materialaren garapena. Ikerketa eta berrikuntza.
- > Eraikuntza eta Kanalizazio Lineen internazionalizazioa, batez ere Portugalera eta Frantziara zuzenduta.
- > Taldearen kudeaketa parte-hartzailea sustatzea eta sendotzea.
- > Lehiakideengandik bereizteko ahalegina eta kostuen murrizketa.
- > Merkatuetan sartzea eta duen parte hartzea sendotzea.
- > Kanpoko nahiz bertako bezeroaren gogobetetzea bilatzea

ULMA Taldeak 234 lanpostu

Horrela definitzen dugu gure misioaren helburua:

"Talde mailako ekimen enpresariala eraikitzea dugu helburu, pertsonengan eta hauen garapen osoan oinarriturik, eta bezeroen etengabeko gogobetetzearen bitartez, taldearen langileok, kanpoko kolaboratzaileek eta gure inguru sozialak aberastasuna eta enplegu berriak sortzeko gaitasuna izan dezala, komunikazioko eta partaidetza aktiboaren esparru kooperatibo batean."



Definizio honek markatzen duen konpromisoarekin bat eginda, gure Negozioen hazkundera eta jarduera berrien sustapenean lanean jarraitzen dugu.

Enpleguaren hazkundera

2004ko ekitaldian enpleguaren hazkunde nabarmena izan da, batz bestek 2.865 lanpostuko kopurura helduz (filialak barne). Honek suposatzen du aurreko urtean baino 234 lanpostu gehiago sortu direla 2004ean. Bazkideei dagokienez, 134 berri sartu dira.

Azken ekitaldian sortutako enplegua, batez ere, atzerriko filialetan izan da. Euskal Autonomia Erkidegoan 56 lanpostu berri sortu dira. Gaur egun, enplegua horrela gelditzen da geografikoki banatuta:

Bataz besteko enpleguaren bilakaera



berri sortu zituen 2004ean

Elkartasun Instituzionala

MCCko proiektuaren partaideak izanik, gure elkartasun-konpromisoak direla medio emaitza-banaketatik honako dirulaguntza hauek banatu ditugu Korporazioak kudeatzen dituen fondo ezberdinen artean:

- Emaizta-banaketaren %10 (2.327.867 euro), Elkar-Lankidetzako Fondo Nagusiari. Fondo honek proiektu estrategikoetarako, jarduera berrien sustapenerako, zorpetze-ahalmena agortu dituen kooperatibak finantzatzeko, galerak berdintzeko eta berregitura-proiektuetarako laguntzak banatzen ditu.
- HKSF-en (Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboko Fondoa) %20, hau da, 256.983 euro, FEPI-ko (Kooperatiba arteko Hezkuntza eta Sustapen Fondoa) itzuli beharrik gabeko fondo bezala. FEPIk prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionaleko proiektuetarako eta ikerkuntza eta taldea kooperatiboaren garapenerako ekimenerako laguntzak banatzen ditu.
- HKSF-en %10, 128.491 euro, Mondragon Unibertsitatearako.
- Azkenik, gure emaitzen %2, hau da, 465.573 euro, itzuli beharrik gabeko fondo bezala Elkartasun Kooperatiboaren Fondora. Honek MCC Fundazioari errekurtsoak ematen dizkio, MCCko Industri Taldeko galeren %50 berdintzeko erabiltzen direnak.

Seguritateaz eta Lan-osasunaz daukagun kezka

ULMA Taldeko langile guztien seguritatea eta lan-osasuna bermatzeko asmotan, 2004ko ekitaldian Taldeko Negozio guztietan Lan-Arriskuei Aurre Hartzeko Kudeaketa Sistemak jartzeko aurrerapauso handiak eman dira eta 2005eko ekitaldian sistemak guztiz ezarrita geldituko dira. 2004ko ekitaldian Oinarrizko Osasun-Taldea handitu da, mediku bat gehiago sartuz. Orain taldea bi medikuk eta bi OLT-k (ATS-a, gaztelaniaz) osatzen dute. Halaber, Lan-Arriskuei Aurre Hartzeko taldeak ere handitu egin dira Negozio guztietan.

Seguritatea eta Lan-Osasun arloari emandako bultzada bere fruituak emango dituelakoan gaude, segurtasuna areagotuz eta lan-istripuak zein gaixotasun profesionalak murriztuz.

Gizartearekin daukagun konpromisoa



Taldeak ezarritako politikari eutsiz, HKSF-ko fondoak behar ezberdinei laguntzeko erabiltzen jarraitzen dugu.

FEPI-ri emandako kontusailak eta Mondragon Unibertsitateari emandako laguntza berezia kenduta, 1.420.664 euro banatu ditugu, ondoko fondoaren artean banaturik.

- Sustapen Kooperatiboaren Fondoari %27
- Prestakuntza Proiektuei (Negozioak eta Taldea) %16
- Elkarlankidetzako Proiektuak %15
- Hezkuntza, Ikerketa eta Garapenerako entitateei laguntzak %19
- Sustapen Sozio-Kulturaleko proiektu ezberdinei %23

Laguntza garrantzitsuak honako hauek izan ziren:

- Mondragon Unibertsitateko proiektuak
- Kiroldi Fundazioa babesletza, kirola sustatzeko
- Oñatiko Aloña-Mendi Kirol-Taldeari laguntza
- Txirrindularitza Itzuliaren babesletza eta Gaztela eta Leon Sari Nagusia
- Kulturarekin eta euskararen normalizazioarekin zerikusia duten hainbat proiektuei (Musika Eskola, Elhuyar Fundazioa, Kontseilua, Goiena, dantza taldeak, antzerkia, etab.).
- Bertako hezkuntza-proiektuak eta Udako Ikastaroak (EHU-rekin eta Real Sociedad-ekin elkarlanean beken finantzaketa).
- Asistentziako erakundeekin lankidetzak (Matia Fundazioa, San Martin Egoitza, etab.)
- GKE ezberdinekin elkarlankidetzak, Mundukide proiektua bereziki. Euskal Herriko Mugimendu Kooperatiboaren proiektua, garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko.
- Hurbileko hainbat GKE-iei laguntza, proiektu sozio-kulturalak sustatzeko.



Fabián Lentz

Fabián Lentz argentinarra munduko edozein tokitan eta hainbat lan egoerataraz egokitzen jakin duen abenturazalea da. 18 urte zituenean Espainiara iritsi zen eta, hasiera gogorra izan bazen ere, gero ULMA Packaging negozioak Sevillan zuen ordezkartzan hasi zen lanean. Beranduago Mexikon ULMA Packaging negozioa ezartzeko ardura bere gain hartzea proposatu zioten, eta Yolanda emaztearekin eta bi seme-alabekin harantz joan zen; han, zeretik hasita, denetik egin behar izan zuen. Hiru urteren ondoren Espainiara itzuli zen eta gaur egun ULMA Packagingen ordezkaria da Madrilen.

"Negozioen internazionalizazioarekin gero eta gehiago dira deserriratutako pertsonak"

Fabián, kontatu Mexikon izandako esperientzia. Oso esperientzia positiboa izan zen, abentura gogoak eta beste merkatu batzuetan mugitzeko erronka pertsonalak bultzatutakoa. Abentura guztietan bezala, ausardia apur bat beharrezkoa da, baina adiskide berriak egiteko aukera izan nuen eta garapen pertsonal eta profesional handia lortzeko aukera eskaini zidan.

Mexiko lehenagotik ezagutzen al zenuen?, herri bateko kultura ezagutzea garrantzitsua iruditzen al zaizu horrelako abentura profesional bati aurre egiteko? Nire kasuan, Mexikora joaten nintzen lehen aldia izan zen, baina Buenos Aires bezalako hiri batean hazi nintzen, nahiko antzekoak izango zirela pentsatzen nuen, eta halaxe egiaztatu nuen gero. Zalantzarik gabe, toki bateko ohituretaraz azkar ohitzeak asko errazten du egin beharreko lana; gainera, beste mota bateko eragozpenak ere saihesten dizkizu, eta eragozpen horiek handiak izan daitezke Mexiko

"AEBra hurbiltzeko politikak"

"Mexikoren etorkizuna baldintzatuko du"

bezalako herrialde batean. Mexiko magnitude handien herrialdea da. Adibidez, hiriburuan 22 milioi pertsona baino gehiago bizi dira, eta egunero 4 milioi ibilgailu inguru mugitzen dira bertan. Eta 10 ibilgailutatik seik ez dute aseguratik. Mexikarrek esan ohi dutena gogoratuz, «en DF o te aclimatas o te "aclimueres"». Honelako abenturatan arrakasta lortzeko gakoa tokian tokiko ohiturak onartzea da, besteek aldatu egin behar dutela eta zure ohiturak hartu behar dituztela pentsatzeko joera alde batera utzita.

Zein desberdintasun aurkitu dituzu?, lan-erritmoetan edo negozioak ulertzeko moduan alderik ba al dago? Mexikoren

kasuan, harremanak eta negozioak egiteko orduan dituzten protokoloak ulertzen ez badituzu porrot egiten duzu. Aitzitik, protokolo horiek ondo ezagutzeak, hau da, beren ohiturak errespetatzeak, balio handia du. Topikoak ere oinarri bat izan ohi dute beti eta Mexikoko lan-erritmoak oso ezagunak dira; baina hasierako unea gainditu ondoren, zailtasun handirik gabe bereganatzen dituzu. Nire kasuan, noizean behin Oñatira bisitan etortzea izaten zen absurdoaren eta logikoaren arteko ikuspegia mantentzeko modurik onena.

Mexikoko filiala finkatuta dago orain. Zein merkataritza-aukera ikusten dituzu Mexikon ULMA

Packaging negoziarentzat eta

ULMA Taldearentzat? Nire ustez, Mexikoko merkatuak aukera handiak eskaintzen ditu, besteak beste AEBk hedatzeko duten inguru naturala baita, bai negoziotarako, bai aisialdirako. Amerikarrak munduan ospe txarra hartzen ari diren bitartean, geografikoki eragiteko duten gaitasuna gero eta mugatuagoa da. Mexikok soldata-kostu txikia izan du beti, petrolio-hornitzaile ona da, aisialdirako inguru merkea da eta, gero eta gehiago, beharrezko baratzere ere bihurtu da. Azken urteetan, bi herrialde horien arteko harremana arautu egin da Ipar Amerikarako Merkataritza Libreko Tratatuaren bitartez.

Nola ikusten duzu gaur egun herrialde latinoamerikarretako, Mexikoko, Argentinako, Brasilgo eta abarreko egoera ekonomikoa? Baikor izateko arrazoiak al daude? Ausarkeria litzateke nire aldetik inolako iragarpenik egitea, are gehiago kontuan izanda gai hauetan adituak direnak aspalditik ari direla horretan saiatzzen, batzuetan asmatuz eta beste batzuetan ez. Baina Mexiko aurrerapausoak ematen ari da AEBra hurbiltzeko politikan, eta horrek gainerako herrialdeetako egoeratik urrunduko du.

Berriz ere Espainian, orain ULMA Packaging negoziaren ordezkari Madrilan. Lasaia bizi al zara bertan? Ez dakit Madrilgo bizitza lasaia dela esan daitekeen, baina bai apur bat seguruagoa eta antolatua. Batez ere nire kasuan, bi seme-alaba izanik eta etxetik kanpo hainbat urte egin ondoren, ohiturak berreskuratzea behar baitituz.

Aitaren aldetik jatorri alemaniarra duzu, amaren aldetik italiarra, zu zeu argentinarra zara eta, Sevillan eta Mexiko DFn bizi izan

"Harremanak eta negoziak egiteko orduan

dituzten protokoloak ulertzen ez badituzu

porrot egiten duzu"

ondoren, orain Madrilan bizi zara. Zer zentzu dute zuretzat nazioartekotzea edo globalizazioa bezalako kontzeptuek?

Kontzeptu horiek gaur egungo gizarteari dagozkiola uste dut. Negozioen globalizazioa edo nazioartekotzea pertsonetara hedatzen da, eta gero eta gehiago dira deserritatutako pertsonak. Bestalde, ziklo ekonomikoek, krisi politikoek edo gerrek migrazio-mugimenduak eragin dituzte beti, aukera hobeak bilatzeko itxaropenak bultzatuta. Nire familiaren kasuan, mende hasieran mundu berrirantz abiatu ziren, eta bi belaunaldi geroago Europa zaharrera itzuli da berriro.

Zer esango zenieke lanean bere ingurutik kanpo irteteko aukera eskaintzen zaienei? Zuk ondo diotzun moduan, aukera bat da, ezagutzeko, ikasteko eta gure inguruaren dimentsio egokia izateko aukera. Euskal Herritik ikasketak amaitzeko edo curriculum osatzeko joandako neska-mutil asko ezagutzeko aukera izan dut, eta ilusio handia zuten, esperientziak gozatu egin zuten.

Nire aldetik abentura horretara bultzatuko nituzke.

Azkenik, aukera hau aprobetxatu nahi al duzu pertsonaren bat edo talderen bat agurtzeko?

Zerrenda amaigabea litzateke, jendearen abegikortasuna eta samurtasuna baita gogoan dudana oroitzenik gozoena, baina, bereziki, Eusko Jauriaritzako Ordezkaritzak (lehen Euskal-Mexikar Institutua) emandako laguntza eskertu nahiko nuke, bereziki Imanol Aburtok, Josu de Garitzek eta Esther Olavarriak eskainitakoa. Juan José Arrillagari (Danobat) ere nire eskerrik beroena adierazi nahi dut hasierako aholku baliotsuengatik. Juan Carlos Fortesi eta bere emazte Alejandrari, M^a Carmen López eta Diego bere senarrari, Carlos Fuentes eta Gabi bere emazteari, euren bihotzak ireki zizkiguten adiskideak guztiak, gure bihotzetan ere leku bat egin zutenak. Gure diot, izan ere, esker honekin Yolanda nire emaztearen sentimendua ere agertu nahi baitut, abentura hauetan ondoan izan baitut beti.



Irudian, Fabian Lentz, Jesus M^o Herrasti eta Jesus Catania, MCCkoak. Ondoa Esther Olavarria, Euskal-Mexikar Institutukoa, ULMA Packaging negoziak Mexikon dituen bulegoetara egindako bisita batean, 2003. urtean.

Alergiak: jatorri ezezaguneko patologia kronikoa

Doministikuak, sudur-kongestioa, malkoak begietan, azkura etab. Milioika pertsonak ederrak pasatzen dituzte allergien erruz, eta zaila da organismoaren erreakzio horiek sendatzea. Alergia herrialde garatuetako osasun publikoko arazo larri bihurtzen ari da eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatean eragin dezake.

Erreakzio alergikoa organismoaren gehiegizko erreakzio bat da: alergenoren (alergien eragilea) deritzon gai bati gorputzak ematen dion gehiegizko erantzuna; berez kaltegabea da gai hori, eta etxeko hautsean, akaroetan, lizunean (onddoak), animalien ilean (katuak eta txakurrak), polenean, elikagaietan eta beste hainbat elementutan dago. Horretarako joera duten pertsonengan (askotan gurasoak ere alergikoak dira), gai alergenikoekin behin eta berriro kontaktuan jartzean, gorputzak erreakzioa izaten du eta histamina deritzon gai bat eta beste gai batzuk askatzen ditu; gai horiek dira, hain zuzen ere, erreakzio alergikoaren sintomen eragileak.

Histamina da erreakzio alergikoaren bitarteko kimikorik ezagunena eta alergiaren sintoma asko eragiten ditu, hala nola urtikarian agertu ohi diren gorritasuna edo azkura, edo errinitis

alergikoan sortu ohi diren sudur-kongestioa, sudurreko azkura eta doministikuak.

Zein dira alergiarik ohikoenak?

ERRINITIS ALERGIKOAK. Errinitis alergikoa gero eta gehiago ikusten da eta bizi-kalitateari eragin diezaiolke, eraginkortasunez lan egiteko, segurtasunez gidatzeko edo eguneroko jardueretan parte hartzeko gaitasuna murrizten baitu. Errinorea edo sudur-jarioa (gehiiegizko sudur-mukia), doministiku ugariak, sudurreko, aho-sabaiko eta eztarriko azkura, konjuntiba-narritadura –malkoak ager daitezke edo begien kongestioa sor daitezke– eragiten ditu. Errinitis alergikoa polenarekiko, akaroekiko edo beste alergenoren batzuekiko kontaktuan agertzen da.

URTIKARIA. Gorritasunak eta azkura agertzen dira. Oro har, elikagaien edo sendagaien aurrean sortzen diren



erreakzio alergikoak dira, baina aireko alergenoren, ukipenezkoen edo injeztatutakoaren aurrean ere sortzen dira. Alergiarekin zerikusirik ez duten beste arazoi batzuek ere eragiten dute, hala nola presioak, hotzak edo beroak.

Zein pauso eman behar dira alergiak tratatzeko?

1. Alergia eragiten duten alergenoren identifikatu behar dira. Horrela, elementu horiekiko kontaktua saihestuko dugu. Hori lortu ondoren, erreakzio kopurua txikitu egiten da, baina alergenoren identifikatzea zaila da batzuetan.
2. Antihistaminikoen erabilera, sendagilearen errezetarekin beti. Histaminaren eragina blokeatu egiten dute sendagai horiek.
3. Mastozitoaren degranulazioaren inhibitzaileak, sendagilearen errezetarekin.

Alergiak zifratan

- > 50 milioi pertsonak baino gehiagok alergiaren bat dute Estatu Batuetan eta, horietatik, 26 milioi pertsonak polenari alergia diote.
- > 38 milioi pertsonak alergiak eragindako sinusitis kronikoa dute Estatu Batuetan.
- > Europako lau haurretatik batek alergiaren bat dute eta, zazpitik batek, asma du.



Iñaki Igarzabal, Laneko Osasuneko arduraduna ULMA Taldean

Sendagilearen aholkua:

Atmosferan polen gehien dagoen garaiak zein diren ezagutzea da alergiari aurre egiteko neurri garrantzitsuenetako bat. Ondoko aholkuak lagungarriak dira alergiari aurre babesteko.

1. Polinosia eragiten duen landarea eta polenaren polinizazio-garaia ezagutzea.
2. Gauetan leihoak ixtea. Aire egokituari filtroak ezartzea.
3. Arrisku handiko orduetan kanpoko jarduera murriztea: goizeko bostetatik hamarretara bitartean (polena jaurtitzeko da) eta arratsaldeko zazprietatik hamarretara (airea hozten denean polena atmosferatik behera jaisten da).
4. Autoan goazenean leihoak itxita izan. Autoaren aire egokituari filtroak jarri.
5. Polen-kontzentrazio handiko egunetan etxe barruan egon ahal den ordu gehien. Polinizazio-enerik handieneko egunetan, batez ere haizea egiten duen egunetan.
6. Belarra moztea edo belar gainean etzatea saihestu.
7. Polen asko dagoen egunetan ez jarri arropak kanpoan lehortzen. Polena arropatara itsatsita gera daiteke.
8. Kalera irteteko eguzkitako betaurrekoak jarri.
9. Polen kopuruaren berri izan.
10. Sendagileak emandako sendagaiak hartu.

4. Kortikoideak, sendagilearen errezetarekin. Bigarren mailako efektuak gutxitzeko inhalazio bidezko moduak erabiltzen dira.
5. Sensibilizazioa galtzeko terapia. Alergenoaren kopuru txikiak erabiltzen dira, eta kontzentrazioak handitzen dira poliki-poliki. Gorputza alergenari ohitzen joateko egiten da, gehiegizko erreakzioa saihesteko.

POLINOSIA edo BELAR ONDUAREN SUKARRA

Polinosia edo belar onduaren sukarra sudurreko eta konjuntibako agerpen klinikoekin lotu izan da historikoki, baina polen bakoitzaren ezaugarrien arabera, asma ere ager daiteke, guztia larritasun-maila desberdinetan. Polen mota arruntenak hauek dira:

- > **Gramineoak:** martxotik urrira, gaitasun alergeniko handia.
- > **Asunak (horma-belarra):** urte osoan, batez ere otsailetik ekainera.
- > **Urkia (Betuna):** apiriletik maiatzera.
- > **Olibondoa (Olea):** maiatzetik ekainera.
- > **Itzaleko banana:** martxotik apirilera.
- > **Pinua:** martxotik maiatzera, gaitasun alergeniko txikia.

Udazkenean eta neguan egiten duen euriak landareen erneketa eta hazkuntza baldintzatzen du eta, beraz, baita atmosferara jaurtikitako polena ere. Polinizazio-garaian polen-kontzentrazioek gora egiten dute tenperatura altuekin (egun lehor eta eguzkitsuetan) eta gutxitu egiten dira euria edo hotza egiten duenean. Kontzentrazio handienak goizaldean, landareek goizeko lehen orduetan jaurtitzeko baitute polena (zazprietatik hamarretara), eta ilunabarrean, airea hoztean polenak atmosferaren goiko geruzetatik beherantz egiten baitute, izaten dira. Hirietan polen-kontzentrazioak nekazaritza-inguruetan baino txikiagoak izaten dira.

- > Alergiari epidemiologia misterio handia da. Esate baterako, ez dakigu zergatik eragiten dien Britainia Handian 13-14 urteko gazteen % 32,2ri eta Grezian, aldiz, soilik % 3,7ri.
- > Besteak beste, honako eragile hauek zerikusia dutela uste da: klimak, kutsadurak eta elikadurak.
- > Genetikoki aldatutako artoak edo soiak duten eragina ikertzen ari dira.
- > Nekazaritza-inguruan hazitako haurrengan txikiagoa da.
- > Bulegoetako langileek alergia izateko joera handiagoa dute. Arrazoi posibleak: hormetako estaldurak, paper-solbenteak, airearen zirkulazio txarra eta abar.
- > Mutikoei neskei baino gehiago eragiten die, baina ratioak orekatu egiten dira neraberoan.
- > Zenbait ikertzailerentzat, hiriko bizimoduan murriztu egiten da polen, intsektu eta beste immunogeno batzueganako esposizioa, eta horrek immunitate-sistema alferitzen du eta ez ditu alergiari eragiten dituzten eragileak ezagutzen.

Buru-hausgarri epidemiologikoa



Zer iruditzen zaizu kooperatibaren Batzar Nagusi eta zein alderditan hobe daiteke?



Zigor Etxaburu
ULMA Agrícola

Azkeneko hiru urteetan asko aldatu da Batzar Nagusiaren formatua. Duela hiru urte alde batetik hitzaldiak egiten ziren eta, bestetik, batzarra, biak ere Oñatin. Iaz, Kursaal, goizean hitzaldia egin zen eta arratsaldean batzarra; ez zuen arrakasta handirik izan, jendea batzarraren hasierara joan baitzen, botoa eman eta alde egin baitzuen. Aurten dena, informazio-hitzaldiak eta batzarra, egun berean antolatu dira, eta dena goizean. Nire ustez hori gehiegizkoa da eta azaltzen dutenarenganako interesa galdu egiten da. Horregatik, nire ustez, aurreko formula egokiagoa zen, hau da, alde batetik hitzaldiak eta beste batetik batzarra egitea. Bestalde, batzarrera joateko Donostiaraino joan beharra gehiegizkoa iruditzen zait, Oñatin bertan edo inguruan honelako batzar bat egiteko nahikoa leku duen tokiren bat egongo dela pentsatzen dut.



Jon Egaña
ULMA Carretillas Elevadoras

Argi ikusten da Ohiko Batzar Nagusiaren gaur egungo formatua aldatu beharra dagoela. Azken urteetako informazioaren arabera, kasu gutxi batzuetan izan ezik, batzarretan oso jende gutxik hartzen du parte. Batzarrak tramite hutsa dirudi eta bazkideek halaxe hartzen dute eta ez dira joaten, zeregin interesgarriagoak dituztelako. Badirudi galdera hau egitea bururatu zaionak ere batzarraren gaur egungo formatuari buruz zalantzak dituela. Zer aldatuko nuke edo zein ekarpen egin dezaket nik? Ez naiz arazo horri konponbidea bilatzeko pertsonarik egokiena, horrelako arazoak konpondu behar dituzten pertsonak baditugu. Baina, nonbaitetik hasteko, lehenik eta behin jendeari batzarra zer den eta zertarako balio duen azaldu beharko litzaioke, eta Ohiko Batzar Nagusiaren aukera guztiak erabiltzen erakutsi.



Miguel Vazquez
ULMA Construcción

Zer esan daiteke urte osoko balantzea goiz batean laburtzen duen batzar nagusi bati buruz?, bada, aspergarri samarra dela, baina, zer aldatu edo hobetu liteke? Egia esan, ez daukat oso argi... Beharbada ikus-entzunezko materiala erabiltzea faltan bota dut, esate baterako, argazki gehiago edo negozioetako jardueren irudiak, produktu berrienak, instalazio berrienak, erositako azkeneko lantegienak etab., hori guztia grafikoekin eta iruzkinekin batera, batzarra ohi baino luzeagoa izan ez dadin. Beste alde batetik, etxean (Oñatin) edo inguruetan egitea ere positiboa litzateke.



Antonio Hervás
ULMA Forja

Batzarraren formatua zuzena iruditzen zait, baina bertan aztertuko diren gaietara buruzko datu gehiago izan behar genituzkeela uste dut, landuko diren gaietara buruzko iritzia emateko edo galderak egiteko aukera izateko eta, hala, sortzen zaizkigun zalantzak argitze-ko. Bestalde, bazkide guztientzat erakargarria izango den batzarra egiten saiatu behar dugula uste dut, jende gehiagok parte har dezan, izan ere, batzarrak interesa sortzen duenean edo gai interesgarri bat bozkatu behar denean, parte-hartzea asko handitzen baita, eta nire ustez, interes hori mantentzea eta sustatzea ona izango litzateke, bozketarik egon ala ez.

ko gaur egungo formatua



Zigor Aranbarri
ULMA Handling Systems

Oro har, uste dut batzarraren gaur egungo formatua egokia dela, hizlarien azalpenari diapositibekin lagunduz. Baina edukien azalpena da hain zuzen ere eztabaidagarriena, nire ustez, ez baita erraza azalpenari jarraitzea, ulermena zailtzen duten zifra eta termino berezi ugari erabiltzen baitituzte. Bestalde, erabakiak demokratikoki hartzen diren arren, kooperatibistek parte hartzeko bideak hobetuko nituzke eta parte-hartze aktiboa sustatuko luketen bideak erabiliko nituzke, pertsona bakoitzak duen iritzia adieraztea errazagoa izan dadin. Kooperatiba zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zailagoa da parte hartzea eta, beraz, bideak eta moduak ebaluatu behar lirateke, parte-hartzea handitzeko.



Jesus Zabaleta
ULMA Hormigón Polímero

Nire ustez, ohiko batzarra tresna baliagarria da azken ekitaldiko kudeaketa aztertzeko eta kooperatibak etorkizunera begira dituen proiektuei buruzko informazioa zabaltzeko. Gainerako kooperatiben emaitzak ere interesgarriak dira. Gaur egungo formatuari dagokionez, aurrez ezarritako gai-zerrenda izatean batzarra apur bat zorrotzagoa da eta, batzuetan, aspergarria, bertan lantzen diren gaiengatik, gehienetan ekonomikoak izaten baitira, zifra eta ehuneko askorekin. Iraupena ere luzea izaten da eta horrek ez du bazkideen parte-hartzea sustatzen. Nola hobe liteke? Beharbada, datu finantzarioak murriztuz eta bertaratutakoek ekarpenari garrantzia handiagoa emanez; baina, beste alde batetik, egoera pertsonaletan galtzeko arriskua dago. Arrisku hori saihesteko, iritzia modu globalean azter daitezke.



Julio Larrañaga
ULMA Packaging

Urteko Batzar Nagusiak aspaldian galdu zuen hasieran zuen izaera eta gaur egungo formatua agortuta dagoela uste dut. Batzarra Donostian egitea, gainera, ez da batere egokia, eguneroko errealitatek urruntzen baita eta parafernalia eta handikeria horiek barrura begira baino kanpora begira egiten dituztela iruditzen zait. Dena dela, gauza garrantzitsuak eztabaidatzen direnean jendeak parte hartzen du. Ordainketa-sistema berriaren kasuan adibidez, bazkide askok sistema horrekin ados ez zeudela adierazi nahi izan zuten, eta horrek zer pentsatua eman behar digu. Zoritxarrez, kooperatibaren izaera asko aldatu da eta gaur egungo martxak ez du zerikusirik kooperatibismoaren balioekin. Gure antolamendu-organoen izaera eta funtzionamendua sakon aztertu beharko genuke, eta partaidetza sustatzeko bideak aurkitu beharko genituzke. Hala izatea espero dut.



40 urte elkarrekin

ULMA Forja lantegiaren kanpoaldea eta barnealdea 70eko urteetan.



Barrualdeko irudian trokelgintzako lantegia ikus daiteke, garai hartako garrantzi-tsuenetakoa, alde batetik, forjaketarako estanak egiteko aukera ematen baitzuen eta, bestetik, mekanizatuko makinatarako beharrezko tresnak eskaintzen baitzituen.

agenda eta iradokizunak

ERRETIROA HARTU DUTENAK:

ULMA Taldean erretiroa hartu dutenak. 2005eko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra.



JUAN IGNACIO
ALCORTA GOROSABEL

SANTIAGO
ARREGI GOITIA

JOSE ANTONIO
SANCHEZ ALMEIDA



MIGUEL ANGEL
BEITIA IRIARTE

JESUS GOMEZ
NOVOA

Eskerrik asko
guztiei eta goza
dezazuela!
Zorionak



Mendira ditu eraman
—zerk?—, pozez bete, gazteak.
Mendira ditu eraman.
Bejon begie aizeak.

Aien algara pagadi-bidez,
aien ustezko usteak!
Ai, amesetak irauin begie,
bejon begie aizeak.

Ai, amesetak irauin begie,
bejon begie aizeak.
Aldatz-beerako pagadi-bidez,
beera ta beera gazteak.

Aldapan gorantz, Urbia-raino.
Bejon begie aizeak.
Mendira ditu eraman.
Lillura-giro aideak.

Mendi ganean, bideak, beerantz.
Mendian beera gazteak.
Zerk mendi goien ganetik gorantz,
zerk eten zitun bideak?

Erroitegi-ko arkaitz leioan
kua ta kua beleak.
Gazteak azken-pagora dira.
Begie lagun usteak.

Bitoriano Gandiaga



Jose Manuel Copete Arbelaiz adiskide eta lankideari.

Joan den maiatzaren 10ean Jose Manuel Copete lankide eta adiskidea hil zen. Bezero baten etxean lan batzuk egiteko Eskoziara joana zen eta hango hotel batean hil zen atake baten ondorioz. Jose donostiarra zen eta, emakume ingeles batekin ezkondu ondorenetik Ingalaterran bizi zen. ULMA Packaging negozioak izan dituen banaketa-enpresetan merkataritzako teknikari lanak egin zituen. ULMAren filiala osatu bezain pronto hasi zen lanean eta 2003. urtean kooperatibako bazkide bihurtu zen. Jose Copete ULMA Packaging negozioko Merkataritzako Kudeaketa Teknikoaz eta Makinen Zerbitzuaz arduratu da urte hauetan, eta ULMAren eta lan egin duen banaketa-enpresen arteko lotura zuzena izan da. Egin zuen lanari eta eskainitako zerbitzuari esker, ULMA Packaging negozioak Erresuma Batuan dituen bezeroen leialtasuna lortzeko funtsezkoa izan zen. Bestalde, ezin dugu ahaztu Jose Manuelek Asian, Afrikan eta beste hainbat tokitan ere lan egin zuela bere borondatez. Une honetan Jose Manuelek ULMArekin lotutako edozein gaitan erakutsi duen jarrera eta prestutasuna gogoratu nahi dugu. ULMA Packaging negozioan lan egiten dugun pertsona guztiak oso harro gaude gure adiskideaz eta gogoan izango dugu beti. EREDU BIKAINA IZAN DA.

Jose A. Urteaga. ULMA Packaging



Gure adiskide
eta lankide
Jose Antonio
Madinari.

Berezia izan zinen, baita gure artetik alde egiteko eguna aukeratzeko orduan ere; joan den ekainaren 21ean uda hasi zen eta, horrekin batera, maite zintugunontzat zu gabeko bizitza ere hasi zen. Zaila da jada gure artean ez zaudela onartzea eta, zorigaitzoko gaitotasun horrek poliki-poliki gugandik urrundu zintuen arren, orain inoiz baino hurbilago sentitzen zaitugu, barrenean sentitzen baitzaitugu, adiskide bat, zure mailako PERTSONA bat galtzean sortzen den sentimendu sakon eta bakar hori sentitzen dugu. Jose Antonio, une asko bizi izan genituen elkarrekin, laneko nahiz lanetik kanpoko harremanean, zurekin barre ugari egin genuen, zurekin ikasi genuen, zurekin hazi ginen, eta noizbait amaiera saihestezin hau iritsiko zela bagenekien arren, orain negar asko egin dugu, ondo baitakigu bidaia honek ez duela itzulerarik. Baina ez dugu triste eta atsekabeturik gelditu nahi, eta Jainkoari eskerrak eman nahi dizkiogu gure bidean jarri zaituelako, ezagutzeko aukera eman digulako, zu eta zure familia zoragarria ezagutzeko aukera, zure ondoan hainbeste gauza on bizi izan ditugulako eta zenbateraino maite zaitugun esateko aukera izan dugulako. Zure arima dagoen lekuan dagoela, gureak zure falta izango du beti. Bidaia ona izan dezazula, adiskide...

Antonio Pérez. ULMA Construcción.



IRADOKIZUNAK

Animatu eta jarraitu iradokizun gehiago bidaltzen, honako helbideetara:

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otaui Zuhaitzia, 3 - 13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.; BEGIRA
begira@ulma.es

Idatz dezagun gure historia guztion artean



Gure irakurleei;

Begira aldizkariaren hurrengo zenbakian, hamarkadaz hamarkada, ULMAren historia biltzen duten gehigarriekin jarraituko dugu eta oraingoan 90eko hamarkadaren txanda da; gure irakurleen artean horren harrera ona izaten ari den bildumaren barnean laugarren gehigarria da honakoa.

Etxean urte haietako agiriak, argazkiak, bideoak, albisteak eta bestelakoak baldin badituzue, ondo-ko helbidera bidaltzea eskertuko genizueke:

Postaz;

ULMA Taldea

e-mailez; begira@ulma.es

Zerbitzu Zentralak

Otadui Zuhaiztia, 3 – 13 p.k.

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Azkenik, edozer gauza argitzea nahi baduzue edo edozein zalantza baldin baduzue, Mila Barrutiarengana jo dezakezue ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletan (Telefona: 943 03 49 00).

Eskerrik asko aurrez emandako laguntzarengatik.

**Har ezazue parte
proiektu honetan!**